

ZM

ZORROTZ MORROTZ

50. ZERUA 2018ko MARTXOA



BITTOR RUEDA

**ZORROTZ MORROTZ ALDIZKARIKO
LEHENDABIZIKO KOORDINATZAILEA**

HARRAPARI ATHLETIC ZALETUEN TALDEA

Allianz 

Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea
48013 Zorrotza

Tel. 946551773
Sakelakoa. 691218922

E-mail: valerio.merino@allianzmed.es

FEVE eta beste hainbat aldarrikapenetan dihardugu

Lehenik eta behin ZM aldizkarian egiten duzuen lana txalotu eta zoriondu 50. zenbakira heltzeagatik. Urte askotarako eta mila esker!

Urtarrilean Herri Mugimenduak lan jardunaldia izan zuen, azken urteetan egindako lana baloratzeko eta aztertzeke asmoz. Oso interesgarri izan zen eta datozen asteetan ateratako ondorioak ezagutaraziko dira.

FEVEko geltokia lurperatzearen aldeko kanpainari eutsiko diogu, mobilizazioak eta negoziazio lanak uztartuz. Kotxe karabana eta udaletxe-ko eskileretan egindako elkarretaratzea izan dira azkeneko mobilizazioak. Adi egon, deialdi berriak egongo baitira.

Honez gain, beste gai batzuetan ere lanean dihardugu, hala nola: elkarbizitza; Giza Hezkuntzako Proiektua; mugikortasuna eta garraioa, belaunaldiarteko proiektua; Polikiroldegikiko harremana, Auzo-Etxe berria... Informatuta jarraitzera animatzen zaiteztegu Zorrotza hobetzeko bidean!



HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

ZM zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoko bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian "harpidetza" jarriz

Zorrotzako kultur aldizkaria
50. zenbakia. 2018ko martxoa

Argitaratzen du:
Zorrotzako Euskal Txokoa

AEK euskaltegia
Zalbidea, 7 behea
48013. Zorrotza. Bilbo

Emaila: zmorrotz@gmail.com

facebook.com/ZorrotzMorrotz

[@zorrotzmorrotz](https://twitter.com/zorrotzmorrotz)

Koordinazioa: Aitor Marín

Diseinua eta maketazioa:
amc diseinua

Erredakzioa:

- Ibai Barrios
- Ainaro García
- Igor Gutiérrez
- Aitor Marín
- Naroa Peña
- Iratze Pérez
- Zuriñe Vila

Zuzenketak: Iñigo

Langutzaileak:

- Karlos Rodríguez
- Manu Cobo
- Asier Urkiza
- Saül Kurto

Inprimaketa: Arin Graf



Zorrotz Morrotz aldizkariak Bilboko udalaren diru-laguntza jaso du baina ZM da edukia erantzule bakarra



MADNESS KAFETEGIA
Elkano eta Javier
Zalbidea estrata, 5 - atzea
ZORROTZA
48013 BILBO

Tel. 94 441 62 75

armazoa + kristalak

95€

hurbileko edo urruneko kristalak

ABARO ESTARTA, 5 | 944 27 40 80

ibarretaluxury
OPTICA

TABERNA INDRARA

Abaro estrata, 10

Zorrotz Morrotzen 23 urte eta 50 zenbakiak biltzen dituen erakusketa aurkeztu dugu Auzoka zentroan



Zorrotz Morrotzeko erredakzio taldea



Zorrotz Morrotz

1995eko irailean argitaratu zuen Zorrotzako Euskal Txokoa Kultur Elkarteak Zorrotz Morrotz aldizkariaren lehen alea. 4 orrialdeko argitalpena izan zen lehen hura, tinta bakar batean inprimatuta eta Zorrotzako postontzi guztietan banatu zena. Euskara auzoan bultzatzeko tresna gisa sortua, aldizkari egiturarik ere ez izatetik, gaur egun Zorrotzako proiektu komunikatiborik sendoena eta eus-

kara hutsean Bilbon bizirauten duen paperezko proiektu bakarrenetarikoa izatera pasatu da ZM. Bidea ez da erraza izan eta desagertzeko zorian egon da behin baino gehiagotan, baina zorionez, gaur egun 24 orrialdeko bihilabetekari bihurtuta, ZM finkatuta eta inoiz baino indartsuago dagoela esan dezakegu.

Izan zirelako gara

Hasierako zailtasunak eta egindako bidea gogoratzeko asmoz, eta batez ere lehenengo ale haiek ezagutu ez zituztenek ikusteko aukera izan dezaten, orain arte argitaratutako ZM guztiak bildu dituen erakusketa bat antolatu dugu Auzoka Komunitate Zentroan (frontoi atzeko lokaletan) otsailaren 23tik martxoaren 28ra. Esan bezala, ale guztiak dira irakurgai, eta erakusketara bertaraturako orok guztiak patxadaz hartu eta irakurtzeko aukera du.

Erakusketari hasiera emateko, aurkezpen ekitaldi bat ere antolatu genuen pasa den otsailaren 23rako. Bertan aldizkari garai guztietako partaideen esku hartzea izan genuen eta oso ekitaldi hunkigarria izan zen komunikabide honen parte garen guztiontzat. Animazioa ez zen falta izan Gotzon Mujikaren eskutik, eta eskertu behar ditugu Asier Urkizak taldekideak agurtzeko botatako bertsoak. Bukatzeko, lunch txiki bat egon zen gerturatuko guztiak solasean aritu ginen bitartean.

Ale guztiak sarean ere irakurgai

Oraindik Auzoka Komunitate Zentruko erakusketa ikustera hurbildu ez bazara, ez galdu aukera. Baina horra joateko aukerarik ez baduzu, ez kezkatu. Izan ere, eta gure aldizkariaren ale guztiak betiko eta guztiontzat eskuragarri izateko asmoz, ale zahar guztiak digitalizatu ditugu eta sarean eskegi ditugu *issuu* plataforman. Irakurgai dituzue esteka honetan: www.issuu.com/zorrotzmorrotz

FEVEko geltokia lurperatzearen aldeko mobilizazioak ez du etenik



Igor Gutiérrez

Azken asteotan mobilizazio berriak egin dira FEVEko geltokia lurperatzearen alde. Oraingo honetan Bilbo erdialderaino eramán du auzo mugimenduak bere aldarrikapena bi agerraldiren bitartez. Batetik, kotxe-karabana abiatu zuten otsailaren 7an, Zorrotzatik hasi eta FEVEren auzian ardura duten hainbat erakunderen egoitzetatik pasatuz: Bilboko udaletxea, Sabin Etxea, Gobernu Zibila eta PPren egoitza. Bestetik, otsailaren 22an, udaletxeko eskaileretan kontzentrazioa burutu zuten, iaz egin moduan. Otsailean urte bat bete da udal batzak Auzo Elkarteak aurkeztutako mozioa ahobetez onartu zue-

netik. Bertan, “Zorrotzarekiko zor historikoa” onartzen zuen udal batzak eta “lehentasunezko helburutzat” jotzen zuen lurperatzea.

Bilboko hirigintza planean aurreikusita

Mobilizazioek oihartzuna izan dute hainbat hedabidetan eta alkateak publikoki berretsi egin du bere konpromisoa. Halaber, prentsan aipatuenez, Bilboko hirigintza plan berriak FEVEan lurperatzea jasoko luke. Hitzak gorabehera, Auzo Mugimenduaren asmoa borrokan jarraitzea da geltokia lurperatzeko proiektu ona, diruz ondo hornitua eta obrak gauzatzeko epea ahalik eta lasterren bermatuta gera daitezen.

CAFÉ
LAS NAVAS

Pintxo
gozoak
egunero

Zorrotza Kastrexana
errepidea 4

ARIN GRAF, S.L.
INPRENTA

Zalbidea estrata, 13-2.
48013 ZORROTZA - Bilbo
Tel/Fax: 94 441 38 23
info@aringraf.com

BAR
KUPELA
Zorrotza-Kastrexana 4

Adingabekoekiko elkarbizitza arazoez ohartarazi zion Auzo Elkarateak Udalari irailan bidalitako gutun baten bidez

Otxarkoagako hilketengatiko bi adingabekoren atxiloketak pil-pilean kokatu du hainbat adingabe elkarbizitzaren arazoan izaten ari diren jarrera. Zorigaiztoko gertaera hau izan baino lehen, Auzo Elkarateak Zorrotzan hainbat adingabekoekin izandako arazoan kezka ohartarazi zion Udalari

Aitor Marin

Otxarkoagako hilketengatiko bi adingabekoren atxiloketak pil-pilean kokatu du hainbat adingaberen jarrerak sortzen dituen elkarbizitza arazoak. Auzo Elkarateak ezagutzera eman zuen duela urte erdia baino gehiago, eta Otxarkoagako zorigaiztoko gertaera hura izan baino lehen, Juan Mari Aburto Biilboko alkateari bilera deia egin ziola elkarbizitzaren arazoa konpontzeko asmoz. Hainbat etxebizitza eta autotan izandako lapurreten aurkako bizilagunen erantzun posiblearen kezka adierazi nahi izan zioten. Landan, Vicente Zabala, Zorrotzabaso eta Zazpi Landa kaleetan bizi diren desgaituraturako hainbat familiatako adingabe batzuen jarreraz ere ardurua nabarmentzen zuen Elkarateak. “Badakigu auzi zaila eta larria dela, eta Udalaren hainbat sailen parte hartzearen beharra duela” azpimarratzen dute Auzo Elkarateko kideek, eta ekintza “bateratua eta integral baten beharra” eskatu zuten.

Uda garaian areagotu ziren gatazkak kalean. Alkateari bidalitako gutunak salatzen duenez, “saltoki edo tabernetan izandako eraso edota lapurretek, gizalegearen kontrako ekintzek eta mikro-indarkeriek azdu honetan ezezaguna zen egoera sortu dute”.

Udalaren zenbait arduradunekin bilera batzuk izan zituzten Auzo Mugimenduko kideek, baina Gizarte Ekintza sailaren falta kritikatu zuen Auzo Elkarateak. Izan ere, sail honek eskolako absentismoaren inguruko hainbat programa kudeatzen ditu eta ume eta gazteei laguntzeko hainbat baliabide. “Elkarbizitza arazoak ez dira polizia gehiagorekin edota giza segurtasun

neurri gehiagorekin solik konponduko” azpimarratu zuten. Halaber, elkarateak zalantzan jartzen zuen gaur egungo baliabideen maila kalean eta ikastetxeetan beharrezkoa den giza-heziketarako. Era berean San Frantzisko, Zabalan eta Bilbo Zaharrean duten adingabe eta familien gizarteratzeko programaren beharra aldarrikatzen zuten Zorrotzarako, zoritxarrez, “errealitate gordinak” hala eskatzen baitu. Programa hau, bazterketa eta pobrezia jasaten duten adingabekoen garapena oztopatzen duten gizarte edo familia arazoak, edota eskola absentismoa ekiditeko baliabidea izan daitekeela diote. Era berean, urte batzuetan indarrean egon ziren giza-askolako tailerren desagertzea gogor kritikatu zuten.

Udalak emandako pausak

Gizarte Ekintzako burua den Iñigo Pomboarekin “arrakastarik gabekoa” izan zen bilera baten ostean, berri batera deituak izan ziren Auzo Elkarateko kideak informazio hau karteretan ezagutzera eman ostean. Ondoren bai, gaia jorratzen hasia da Gizarte Ekintza saila. “Orain arteko giza ekintza zerbitzua Basurtukoarekin batera ematen zen, baina hemendik aurrera Zorrotzarako propioa egongo dela ziurtatu digute” azaldu du Txetxu Rojok, Auzo Elkarateko kideak. Asko aldatu da sailaren jarrera Auzo Elkaratearen aburuz: “Ez dakigu noraino izango den egia, baina beste auzoetan martxan dauden programak Zorrotzan ere egiteko prest azaldu dira”. Era berean, bilerek iraunkortasuna izateko asmoa azaldu du udal sailak, “eta bi hilabete baino lehen berriro batzartezera deituko gaituzte, eta han adinekoen egoera landu nahi dugu” adierazi du Rojok.



Untziola kalea

Fraijuan kalean hasi eta Zalbidea estartan amaitzen da, Abaro estarta zeharkatuz. Kale hau hirurogei hamarkadan egin zan, kaierantzako trenan kendu zanean eta bere lekuen pisuek eraiki zirenean. Hasikeran Abaro arte eta gero Justiren larretan eraiki zanean Zalbidearte. Izena ipini zautsien aintzineko untziolaren orimenez baie Jon Urzelai izenegaz ere esagutzen da kale honetan Francoren poliziaiki erail bait zeban eusko gudaria.



Jai-Alai
kafetegia



Abaro estrata, 12
94 490 12 59

Regalos
Omega
oparidenda

Frai Juan 19
Omega galeriak
Zorrotza
94 482 03 66

www.omegadetalles.com

El
10
de
Fray Juan

Pintxo askotarikoak, hamburgesak eta sandwichak
Bazkariak eta aforiak (erreserbatu behar da)
Ardo onak, kombinatu gozoak, Futbola, musika...

Fray Juan, 10 - Zorrotza - 48013 Bilbao

“ Nire egunerokotasunean euskaraz bizitzeko helburua dut ”



Laura Medina

Jatorria: Mirimire (Venezuela)

Noiztik: 2012tik

Adina: 36 urte

Lanbidea: Erizain laguntzailea.

Venezuelako herri batetik heldu zen Laura Zorrotzara orain dela 6 urte. Gure ohiturak eta kultura hain gustuko ditu, non bere helburua euskaraz bizi ahal izatea baita. Urte bat darama euskara ikasten eta egindako lan handiari esker lortzeko bidean dago.

Testua: Naroa Peña eta Zuriñe Vila

Argazkiak: Naroa Peña

Noiz eta zergatik erabaki zenuen Zorrotzara etortzea?

Unibertsitateko ikasketak Venezuelan bukatu bezain pronto nire herria uztea eta Europara etortzea erabaki nuen nire burua Venezuelan ikusten ez nuelako. Bertan arraroa eta desberdina sentitu naiz txikitatik. Venezuela nire herria da eta izugarri maite dut, baina ez da nire lekua. Hori dela eta, ikasketak amaitu, aurreztuta neukan diru apurra hartu eta Europako herrialde batera joatea erabaki nuen. Urte batzuk beranduago Bidezabalera joan nintzen eta azkenik, duela sei urte, Zorrotzara etorri nintzen.

Euskara ikasten zabiltzala badakigu...

Beti gustatu zait ohitura eta kultura desberdinak ezagutzea, hizkuntzak ikastea, tokiko jendearen artean murgiltzea... beraz, Euskal

Herrira etorri nintzenean argi neukan euskara ikasiko nuela. Hori dela eta, duela urte bat Zorrotzako AEK euskaltegian apuntatu nintzen euskara ikasteko. Ordutik hona astelehenetik ostiralera egunero 2 orduz euskara ikasten dut eta horrez gain, duela 4 hilabete sortu zen berbalagun taldean parte hartzen dut astean behin. Euskara hizkuntza ederra iruditzen zait eta ulergaitza egiten zait Zorrotzan hain jende gutxi erabiltzea. Nire helburua euskaraz bizi ahal izatea da, nire egunerokotasunean, bikotekidea eta semearekin euskaraz aritzea gustatuko litzaidake.

Zer da hemendik gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Gehien gustatzen zaidana da dena oso hurbil dagoela. Auzoan eguneroko bizitza egitea oso eroso egiten zait, supermerkatua, medikua, eskola...dena gertu dago. Bestalde, jendearen arteko harremana ere izugarri gustuko dut. Auzokide gehienok elkar ezagutzen dugu eta jendea beti laguntzeko prest egoten da. Gutxien gustatzen zaidana: argi daukat, FEVEko tren pasabidea. Ez dut ulertzen nola 2018. urtean trenbide bat egon daitezken auzo baten erdialdean lurperatu barik. Ni tren geltokiaren ondoan bizi naiz eta gauez izugarri kostatzen zaigu loak hartzea zaratagatik. Espero dut esan duten bezala, trenbidea laster lurperatzea.

Venezuelako zeren falta sumatzen duzu sakonen?

Etorri nintzenean gauza gutxiren falta nuen, baina duela bi urte ama izan naizenetik, familiaren falta handia sumatzen dut. Nire familia

eta semearen arteko harremana estuagoa izatea gustatuko litzaidake eta bere bizitzaren egunerokotasunean nire gurasoek, adibidez, parte hartu ahal izatea. Bestalde Unaxek nire herriko ohiturak eta kultura ere ezagutzea nahi dut eta nahiz eta nik askotan Venezuelari buruz hitz egin bertan egon gabe zaila egiten zait berak gure sustraiak ezagutzea eta maitatzea lortu ahal izatea.

Nola bizi duzu zure herriko egoera hainbeste kilometrotara egonda?

Oso zaila da. Politikoki egoera zaila da baina niri pena eta amorru handiena ematen didana egoera soziala da. Uste dut gizartea oso berekoa bihurtu dela. Balore asko desagertu egin dira, elkartasuna eta elkarbanatzea, besteak beste. Nik gogoratzen dut txikitik "harina pan" erostera joan eta egun batean erosi ahal izatea eta hurrengoan ezin erostea prezioa izugarri igo zelako; baina ez zegoen arazorik, nire auzokidearengana joan eta dudarik gabe berak emango zidan. Gaur egun, nahiz eta auzokideak 5 kg "harina pan" eduki nahiago du zakarrontzira bota albokoari eman baino. Eta egoera hori da izugarri penatzen nauena.

Bestalde, akademikoki oso ondo prestatutako jende gaztea, lizentziatuak, Venezuelatik joaki doa eta horren ondorioz, pobrezia kultural handia dagoela uste dut. Egoera argi dago zaila dela, baina nire ustez gizarteak egiten duena baino askoz gehiago egin lezaake. Guztion indarrak batuz, dena hoberantz joango dela argi daukat eta espero dut bertako jendea garairik konturatzea eta gure herria gora joatea.



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak
Itsaski-baztegi propioa
Eguneko menua eta menu hitzartua*

Clara Campoamor, 2
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30
www.mesonluna.es

AUTO ESCOLA
KAIKU



Liderra Ezkerraldean
Zorrotza Kastrexana, 1
Tlfno: 94 427 88 10

**ROCKET
TAVERN**



Plater konbinatuak,
hanburgesak,
oilasko erreak...

FRAI JUAN, 8 • Tel 94 655 68 98

HARRAPARI TALDEA

Orrorik ozenena

Athletic zaletuen talderik berriena dugu Harrapari taldea, 2009ko azaroan ofizialki aurkeztu zena. Athletic edo jokalarien zaletuen talde klasikoetatik aldentuz, kutsu soziopolitiko alternatiboagoa eman nahi izan zioten taldeari, alor sozialean zeresanik duen taldea sortuz



Testua: Iratxe Pérez
Argazkiak: Harrapari taldea

Izena eta logoa, taldeko kideek sortu eta bozkatzu adostuak izan ziren. Logoa, jarra-
ra gazte eta erradikalagoa izan dezala nahi
zutenez, Athletic-en sinboloez gain, beste
ikur bat ere ipini zuten: izar gorria. Taldearen
egoitza Indarra tabernan dago gaur egun.
Hala ere, lehenengo, Errekaldeko El muro
tabernan eta gero Zorrotzako Alboka tabe-
rnan ere egon zen. Beste zaletu talde batzue-
kin konparaturik, ez da talde handia: 80 bat
kide dira. Bazkide gehienak Zorrotzakoak
badira ere, leku guztietako jendea biltzen du
taldeak: baita Leoneko kide bat ere! "Sare
sozialetan ezagutu eta taldearen pentsaera
gustuko izan zuenez, kidetu egin zen".

Sortu zenetik, Athletic jarraitzen dute etenga-
be, eta talde bezala ez dira jokalaria indibi-

dualekin identifikatzen, hauek etorri eta joan
egiten direlako, baizik eta Athleticekiko senti-
timenduarekin, horrek betirako irauten duela
baitiote. Talde irekia da eta ez oso hierarki-
koa: hasieran, erabaki guztiak asanbladetan
hartzen bazituzten ere, azkenean, lanak koor-
dinatzeko zuzendaritza batzorde bat sortzea
erabaki zuten. Hala ere, lan taldeek guztiz
irekiak izaten jarraitzen dute. Bilerak egiteko
ez dute maiztasun finkorik. Irteerak antola-
tzen dituztenean, maizago biltzen dira, kan-
pora joateko beharrezkoak diren baliabideak
prestatu ahal izateko. Normalean, irtereetan
partidak ikusteko garraioa, ostatua eta talde
animazioa eskaintzen dituzte. Gogoan dute
antolatutako lehenengo irteera: izan ere,
Oviedon autobuseko leihoak apurtu zizkien
eteko zaletu talde faxista batek. Horrezke-
ro, beste esperientzia guztiak askoz ere ho-
beak izan direla diote.



Ez dute inolako diru-laguntzarik jasotzen: “taldearen hasierako urteetan, txosna bat ipini genuen Zorrotzako jaietan, taldea jendearen artean ezaguna izateko” azaldu du Raulek, taldeko zuzendaritza batzordeko kideak, baina proiektu hori utzi zuten. Kideen kuota eta aktibitateetatik ateratzen duten diruarekin ordaintzen dituzte gauzatzen dituzten hainbat ekintza. Horien artean, adibidez, urteurren jaiak antolatzen dituzte azaroro. Egitarauan inoiz ez da falta bazkideentzako bazkari edo afari-rik, potoerik edo harremanak estutzeko balio duen edozein ekintzarik. Bostgarren urteurrena ospatzeko aldis, auzo osora irekitako ekintzak antolatatu zituzten; hala nola kontzertuak, elektrotxaranga, bazkaria... 115 lagun inguru gerturatu ziren taldeak parkean egindako bazkariara. Hamargarrenean ere zer edo zer berezia antolatzeko asmoa dute.

Urtean zehar, etxean jokatzaren partide-tan, tabernan geratu ohi dira partida baino lehen, taldeko kide asko elkarrekin “Iñigo

Ez dira jokalaririk indibidualekin identifikatzen, hauek joan eta etorri egiten direlako, baizik eta Athleticetikiko sentimenduekin, horrek betirako irauten baitu

Cabacas Herri Harmaila” animazio harmailan kokatzeko gero. Hortxe, beste peña batzuekin daude kontaktuan: Piratak, Herri Norte, Marcelo Bielsa, Zazpiak bat... Beste hainbat zale-talderekin erlazio oso ona daukate, batez ere Piratak taldearekin, anaitasun-harremana baitaukate. Athleticekin ez dute kontaktu handirik; baina taldearen inauguraziorako direktiba etorri zen eta zale-taldeen artean batzarrak egiten diren bakoitzean, parte hartzen dute. Deia egunkariak antolatzen duen futbol 7 txapelketan parte hartzen duen Harrapari futbol taldea ere sortua dute.

Haiek harremanetan jartzeko, bilatu Harrapari taldea Facebooken!

cafe*txinbo*

Espezialitateak:

Tapak eta errazioak
Kanapeak



Abaro estrata, 10
Tel. 94 608 85 74



Zorrotza Kastrexana, 7
Telefonoa: 94 441 64 86

Taberna
Ai TOR
José eta Juan Carlos
Soka kalea, 11. Zorrotza
Tel. 94 482 07 96

ZORROTZA F.C.
kirolarekin,
auzoarekin eta
euskararen alde!

BITTOR RUEDA: ZM aldizkariko lehendabiziko koordinatzailea

“ Postontzi guztietan aldizkari bat euskara hutsez agertzea ezinezkoa ematen zuen erronka bat izan zen ”



Zorrotz Morrotz aldizkariaren lehenengo zenbakia 1995ean argitaratu zuen bost urte lehenago sorturiko Zorrotzako Euskal Txokoak. Elkarte honen sortzaileetarikoa izan zen Bittor, eta baita elkartearen eta aldizkariaren lehenengo koordinatzaile ere, lehendabiziko urteetan. Aldizkariaren sorreraz, eboluzioaz eta jada kanpotik, gaur egungo Zorrotz Morrotzi buruz hitz egin digu.

Nola sortu zen Zorrotzan eta euskara hutsean aldizkari bat sortzeko ideia?

Ba egia esan, ez dut zehazki gogoratzen. Gauza asko planteatzen ziren Euskal Txokoan garai haietan, txarto zeuden gauza gehiegi konpontzeko asmoz... Norbaiti bururatuko zitzaion aldizkari bat egiteko aukera zegoela... eta aurrera! Gauzak bata bestearen atzetik egiten genituen. Lehenengo alea zoroaldi bat izan zen. Lauzapabost testu, kolore bakar batean, lau orrialdetan, eta auzo osoa buzoneatu genuen. Baina ez genuen lan talderik, ez egiturarik osatu aldizkari bat betetzeko.

Eta nola eta noiz sortu zen aipatutako Zorrotzako Euskal Txokoa?

Sorreran Izenbarik Mintzataldea izan zen. AEK euskaltegiaren barruan sortu zen eta hainbat lagun geunden: Manu, "Txispas" deitzen genuen beste bat, Patxi... Gaur egun "Berbalagun" deitzen dugun talde bat bezalako taldea zen. Hitz egiteko eta hainbat jarduera egiteko batzen ginen... Geroago, Bilboko Udaletxean, Gorordoren garaian oker ez banaiz, zinegotzi karguak bozken arabera banatu ziren. Herri Batasuna alderdiari tokatu zitzaion Euskara Arloa, eta Koldo Celestinoren agindupean, sortu zen Euskal Txokoen proiektua. Modu batez, udal estruktura politiko eta instituzionaletik euskarazko kultura bultzatzeko herri mugimendua sortzeko tresna eman zigun eta "Mintzatalde" hura Euskal Txokoa bihurtu genuen. Laburbilduz, Bilboko Udalak dirua jarri zuen auzoetan kultur egitarau bat euskaraz osatzeko. Dirua izanda, kultur programa bat osatzen eta bestelako lan batzuk egiten hasi ginen.

Aldizkaria ordaintzeko baliabidea ere bai?

Bai. Botea jartzen genuen gauzak egiteko eta horrelako aldizkari bat inprimatzeak dirua suposatzen du. Guk ez genuen ez laguntzailerik, ez ezer. Zorionez denborarekin demostratu da badagoela jendea horrelako proiektu bat sustatzeko prest.

Zein zen zure betebeharraren taldean?

Euskal Txokoa proiektua sortu zenetik, Udalak ez zuen inoiz hitzarmen ofizialik sinatu, benetan Euskal Txokoak auzoetan finkatzeko asmorik ez zeukan estruktura burokratikoak... Baina bai ziurtatzen ziguten urtero diru kopuru



bat egongo zela programa aurrera ateratzeko. Euskal Txokoa programa guztiaren funtzionamendua ziurtatu zezan soldatapeko pertsona bat egotea erabaki zen taldean eta ni hautatu ninduten. Bizpahiru urte edo egon nintzen horretan. Taldearen motorea nintzen, lan batzuk egiten nituen, besteak beste aldizkariaren koordinazioa. Beste kide guztiak ahal zuten neurrian aportatzen zuten. Kalkulu bat egin zen eta lau orduko lanaldiko soldata neukan, nahiz eta gehienetan bikoitza sartu proiektuan... Luzaro jarraitu nuen lan horietan, jada guztiok bolondres moduan. Izan ere, nahiz eta batzuetan soldatak egon, borondatez egiten dira lan hauek. Herri mugimenduan lan egitea ez da aberasteko bidea.

Nolakoa zen euskararen egoera Zorrotzan garai hartan? Gaurkoarekin alderatuta?

Gurea hasiera bat izan zen. Momentu bat non ez zegoen ezer. Gu baino lehen, AEKren sorrera, gau eskolak eta Korrika. Euskaltzaleak baziren, baina ez euskaldunik. Zorrotzako lehen euskaldun osoak izan ginen. Lehenago ez dut uste askoz gehiagorik izango zirenik... Gero D erueda eta beste motatako euskalduntze prozesu berriak etorri dira. Ez dut esango gaur egun euskararen egoera ona denik, ezta gutxiago ere, baina garaia ezberdina zen.

“ Hurrengo alea kaleratze hutsa erronka zen. Maiztasun finkorik ez genuen eta ahal zenean kaleratzen genuen aldizkaria. Gaur egun, krisialdi ekonomiko garaian, Zorrotza batean, eta aldizkari komertzial baten formatuan ZM euskara hutsean bizirautea sinestezina da! ”



Aldizkarira itzulita, hasieran zailtasun ugari izango ziren, ezta?

Ez pentsa! Gurea nahiko erraza zen. Gauza handirik ez genuenez planteatzen... Lehenengo ale hori gaur begiratuta, nahiko erridikulua da, egia esan. Lau testu prestatu, beste batek maketazioa egin, inprentara eta arre! Ez genuen sailik, ez jarraipenik planteatzen... hori guretzat ez zen arazoa. Zorrotzako euskaldunak kopuruan oso jende gutxi ginen, baita gaur egun ere agian, baina orduan are gutxiago... Kideren bat jausten bazen proiektu osoa pikutara joateko arriskua zegoen, bai aldizkaria, bai Euskal Txokoa...

Liburuxka izatetik aldizkaria egituratuta izaterako jauzia gogoratzen duzu?

Beharbada hiltegiari buruz egin zen erreportajearekin izan zen benetako jauzia. Lehenago ere artikulua bazeuden, baina nik hori gogoratzen dut, agian nik egin nuelako... Alderdi politiko guztien iritzia biltzea lortu genuen lehendabizikoz, eta dotore geratu zen.

Non biltzen zineten eta nola aukeratzen zenuen zaituzten gaiak?

Bilerak AEK euskaltegi zaharrea egiten genituen, atzeko partean. Oso talde txikia ginen eta bakoitzak bere zatia zeukan eta ez zen hainbeste aukeratu behar. Momentuko beharrraren arabera agian. Gaurkotasanak eskatzen zuena... Hori bai, bazegoen kritika politi-

koa egiteko gogo! Oso kritikoak ginela uste dut, agian kritikoegeiak. Gaur irakurrita ematen du haserre geundela uneoro, kar, kar!

Zein da oroitzapen kuttunena ZMn egondako urteetan?

Lehenengo alea. Lehen aipatu dudana bezala apur bat erridikulua bada ere gaur ikusita, Zorrotzan buzoi guztietan aldizkari hori euskara hutsean agertzea ezinezkoa ematen zen erronka bat izan zen, eta misterioa bada ere, hemen gaude!

Noizbait uztea pentsatu zenuen?

Bai. Aldizkariaren desagerpena aurreikusten zuen artikuluren bat ere badago hortik! Krisialdi bat izan genuen Pablo, maketazioa egiten zuen kidea, Leitzan bizitzera joan zenean. Testuak idatzi, ondo edo txarto, egin genezakeen, baina maketazioarik gabe... Testu guztiak Leitzara bidali behar genizkion, eta berak bueltatzen zizkigun aldizkaria maketatuta postaz. Baina ez zegoen gaur bezalako internet bat: postariak ekartzen zizkigun disketak fisikoki. Zorionez, beste belaunaldi bat agertu zen eta konpondu ziren arazo horiek. Antza, aldizkariak erakarmen prozesu berezia izan zuen. Hainbat ikastaro egin genituen baina aldizkaria izan zen biderik onena jendea proiektura erakartzeko. Ekarpenak izan genituen zenbaki guztietan, eta jasotzen zen guztia argitaratzen genuen, berdin zen zeri buruz!

Eta noiz arte egon zinen ZMn murgilduta?

Aspalditik ez naiz Zorrotzan bizi. Euskal Txo-koan parte hartzeari utzi banion ere, aldizkariarekiko loturari eutsi izan diot artikuluren bat idatzita orain dela bospasei urte arte.

Atzera begira: Bilboko aitzindariak, proiektua bizirik... Harro egoteko, ezta?

Jakina. Nik uste dut baietz. Zorrotza bezalako auzo batean, euskalduntasun maila aintzat hartuz, Bilboko euskara hutsezko lehenengo herri aldizkaria argitaratu izan, harro egoteko modukoa da. Hogeita hiru urte ostean bizirik, eta komunikatiboki inoiz baino eraginkorragoa dela ikustea, izugarria!

50. alea, bihilabetekari bihurtuta... Hau sumatu zenezaketen hasieran?

Inondik inora ere ez. Hurrengo alea kaleratzea erronka zen. Maiztasun finkorik ez genuen eta ahal zenean kaleratzen genuen aldizkaria. Gaur egun, krisialdi ekonomiko garaian, Zorrotza batean, eta aldizkari komertzial baten formatuan ZM euskara hutsean bizirautea sinestezina da! Pentsa: ez dago Bilbo osoan aldizkari bat, benetan edukien aldetik profesionala dena euskaldunon komunitatearentzat! Betiko gure kezka zena ere lortu duzue: zabala izatea. Baita erakargarria izatea ere. Eta hori ez da batere erraza!

Irakurle gisa, gaur egun. Zer da gehien gus-tatzen zaizuna?

Kanpoan egonda, enteratzen naiz Zorrotzan zer gertatzen den. Aldizkari baten helburua informatzea da, eta ZMk lortzen du hori. Ilusio handiz hartzen dut ale bakoitza epostan.



LABURREAN

ZMn irakurtzea gustatuko litzaizukeen titularra?

Ez dakit zelan idatzi beharko litzatekeen... "Zorrotzan euskaraz bitiztea normaltasunez gertatzen da, murritzetarik gabe." Ez da bat-batean gertatuko den gauza bat, eta ziur aski ez da inoiz albiste izango, baina edozein tokitan euskaraz bitizteko ahalmena eta biolentzia sortu gabe.

Oro har, irakurtzea gustatuko litzaizukeen titularra?

"Gero eta zailagoa da erderaz bitiztea Zorrotzan".

Gustukoen duzun argitalpena?

On-line irakurtzen dut batez ere. "Naiz" eta "Berria" komunikabideen atariak dira gehien irakurtzen ditudanak. "Argia" aldizkaria ere oso proiektu potentea da. Baita "uriola.eus" ere.

Zaletasunik?

Bidaia-zeza, filosofia ikastea, mendia, musika... Gehiegi ditut!

Restaurante
Arsenio
Tfno. 94 497 10 03
Clara Campoamor, 6
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak
Menu bereziak (enkarantz)
Eguneko menua

amc
diseinua

Diseinu grafikoa:
irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,
Kamisetak, Opari pertsonalatuak...

www.amcdiseinua.net

Aurrekontuak eta info +: Tel. 657 732 934 • aitor@amcdiseinua.net

Otsailak 23 - Martxoak 28

Auzoka Komunitate Zentroa:

Erakusketa: "Zorrotz Morrotz: 1995 - 2018. 50 ale, hamaika protagonista"

Martxoak 9, ostirala. 21:00etan:

Gaztetxean:

KONTZERTUA: HUTS + NIKETZ

Sarrera: 5 euro

Martxoak 16, ostirala. 21:00etan:

Gaztetxean:

KONTZERTUA: BLOOZE AND GLORY

Sarrera: 7 euro

Martxoak 17, larunbata. 18:00etan:

Gaztetxean:

KONTZERTUA:

XI. PIM PAM PUNK JAIALDIA:

ARPAVIEJAS + SUBVERSION X +

MANIFA + THE BIRRAS TERROR

Sarrera: 8 / 10 euro

Martxoak 22, osteguna. 20:00etan:

Gaztetxean:

UMOREZKO BAKARRIZKETA:

TXIKI: "Barrez blai"

Sarrera doan

Martxoak 23, larunbata. 20:30etan:

Gaztetxean:

KONTZERTUA: GAU BELTZA:

AMANKOMUN + NECROCAKE +

DETHLIRIUM

Sarrera: 5 euro

Martxoak 24, igandea. 19:00etan:

Gaztetxean:

KONTZERTUA: DUB SIGNALS:

WEEPAH SOUND SYSTEM +

AIARALDEKO SOUND SYSTEM

Sarrera: 3 euro

Apirilak 21, larunbata. 21:00etan:

Gaztetxean:

KONTZERTUA: MARINAH (OJOS DE BRUJO)

Sarrera: 8 / 10 euro

Zure elkartearen ekitaldiak ZMeko hurrengo agendan (maiatza - ekaina) iragartzeko, zmorrotz@gmail.com helbidera idatzi apirilaren 20a baino lehen.

Kalabazina ahuntz gazta, tomate eta tipularekin



Osagaiak: ogi txigortua, kalabazina, tomate freskoa, ahuntz gazta eta tipula

Zatitu kalabazina eta tomatea xerratan. Ondoren, txikitu tipula. Frijitu kalabazina eta tipula zartaginean. Frijitu ostean, jarri kalabazin xerra ogi txigortuaren gainean, eta horren gainean, tomate xerra eta gazta zati bat. Bukatzeko, bota tipula gainetik, koilara baten laguntzaz, eta hor daukazu pintxoak jateko prest!

On egin!

Zailtasun maila: Erraza

Prezioa: euro 1

ASKABIDE HERRIKO TABERNA

Fray Juan 20 , 48013, Zorrotza

Telefonoa: 688 855 648





Haizeari begira

Jon Ariza de Miguel. Elkar. 2017. 128 orrialde



Europa zaharreko uharte txiki bati dagokion hotel zahar eta txiki batean, gizon bat zenbait egun pasatzen, aspaldi ikusi gabeko anaiarekin batean. Leihotik begiratu, eta emakume baten errainua ikusi uste du pareko eraikuntzan, gortinen atzean. Jakin-mina pizten zaio, ikusmin hori irrika bihurtzen zaio, ia-ia obsesio, eta denbora igarotzen du leiho ondoan, aurreko andre hori noiz ikusiko, harekin ezaupidea nola lortuko.

Jon Ariza de Miguelen Portugaleteko idazlearen bigarren eleberria dugu hau. Lau ataletan banatu ditu

liburua -egun bakoitzeko bat- nobelako narratzaile-protagonistak eta istorioan aurrera egin ahala, anaiak Atreo izengoitiak deitzen duen gizonaren barne-munduan murgilduko gara; munduaz duen esperientzia eta gogoetetan.



Revolta permanent:

Ultravioleta (Gaua Records) 2018



Revolta etxean da berriro. Horrela aldarrikatzen dute euren itzulera, taula guztiak suntsitzeko prest.

“Ultravioleta” lan berria kaleratu du Barakaldo eta Mungiako herrien artean sortutako taldeak. Hirugarren diska dute honako hau, beraien aburuz orain arteko bereziena. Izan ere, digipack formatuan kaleratutako 8 abestiak Estatuako ekoizle ezberdinek nahastu dituzte, bakoitzak bere izaera musikal per-

sonala emanaz. Masterizazio prozesua ere ez da nolana hikoia izan. New Yorkeraino bidaiatu du masterrak Brooklyngo Cannon Sound Foundation estudioan puzzle ero honen azken pieza osatzeko. Eta ez bairik gabe azken pauso hau oinarritzkoa izan da entzun daitekeen soinu bortitz eta trinkoa lortzeko. Diska estreinatu aurretik “K_1080” abestiaren bideoklipa ikusi ahal izan dugu, super produkzio moduan aurkeztutako ikus-entzunezko dokumentu harrigarria. Baina taldearen habitat naturala eszenatokia da. Idazten duenak hainbatetan ikusi ditu taula gainean eta esperientzia harrigarria da zinez. Kontu handiz ibili ezustekoak handiak izan daitezke eta...

Ibai Barrios

Doinua:

Haizea dator iparraldetik

Sortu zutela hogeit bat urte

pasa da dagoeneko

leiho txiki bat errealtate

aldrebes hau islatzeko

urte hauetan hamaika lagun

lanean ezin hobeto

ale bakoitza zutabez eta

albistez beteta lepo

izan daitezen beste hainbeste

izan gaitezen tarteko

gure auzoa euskaragatik

euskaraz eraikitzeko

Asier Urkiza

**EUSKAL
PRESO ETA
IHESLARIAK**



ETXERA

**GORA
HERRIAI**

★ *independentzia!*
SOZIALISMOA!



ASKABIDE
kultur elkartea
ZORROTZA

Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua zmorrotz@gmail.com helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarrita. Eskerrik asko!



Gustura egiten dena ezin da gaizki atera

Eta hortxe gaude! Formula magikorik? Dударik gabe: egoistak izatea, gustuko bidean egotea, disfrutatzea. Hori da sekretua. Ez besterik.

1988. urtean ginen, gehienak erderaz ikasiak eta gehienak erdera ama hizkuntza bezala. Gurea auzorik erdaldunena ez bazen ez zen urruti ibiliko. Euskara eskolan nekez topatzen zen aukerazko ikasgaia. Bertako euskaldunak anonimatu gorrian eta normalena elkarren berri ez izatea zen. Orain, 30 urte pasa diren honetan harritu egiten naiz. Halako egoera baten, lehen Izenbarik Mintzataldea eta geroxeago Zorrotz Morrotz Bilbo Handiko euskaraz argitaratzen zen lehen aldizkaria!

Seguruenik eguzki sisteman planetak lerrokatzen diren moduan, gure auzoan ere, beharrezko elementuak leku ta momentu berean lotu omen ziren. Batetik AEK euskaltetikiko izar beteranoak. Bertatik igarotako as-

teroi de batzuk eta auzoko saltsetan ibiltzen ziren izar galduak.

Itxuraz, gure Zorrotzan euskararen erabilera bultzatzeko, euskarazko hartu-emanak ohi-koak bihurtzeko, guretzat garrantzi handikoa zen zerbaiti gure indarra eta denbora tarte bat eskaintzeko. Itxuraz... Hala uste nuen bada.

Egia esan, denbora joan etorrian itxura besterik ez zela esango nuke. Orain beste modu batera ikusten dut. Ez zen batere gure indarra eta denbora kausa galdu baten alde emateko. Gurea disfrutatzea zen, sekulako denbora-pasa antolatu genuen. Batek argazkiak atera, diseinulari lanetan aritu, bestea ordenadorean saltseatu (orain dela 30 urteko ordenadoreaaa), besteak kontu zaharretan murgildu. Ondoren lehiaketak, ikastaroak, irteerak, hitzaldiak, diapoak... Dena, gure plazererako, ongi pasatzeko, asko ikasteko, gure mundua haunditzeko. Egoista hutsak ginen, bai horixe.

Eta horrenbeste urte igaro ondoren hortxe gaude! Formula magikorik? Dugarik gabe: egoistak izatea, gustuko bidean egotea, disfrutatzea. Gustura egiten dena ezin da gaizki atera. Gustura ta pozik dabilenari lagunak batzen zaizkio. Hori da sekretua ez besterik. Bejondeizula Zorrotz Morrotz eta zorionak proiektu honekin gozatu duzuen guztioi!!

Pablo Feo, ZMeko lehenengo diseinatzailea

Zorrotzako XXII. ipuin lehiaketa

Aurkezteko azken eguna: maiatzak 18
Non: AEK euskaltegia eta Auzoka Komunitate Zentroa
info gehiago: AEK euskaltegia (Zalbidea 7)

12 URTETIK BEHERAKOAK

- 1. SARIA:** 60 euroko kultur bonoa
2. SARIA: Jolas euskalduna



12 URTETIK BEHERAKOAK

- 1. SARIA:** 100 euroko kultur bonoa
2. SARIA: Jolas euskalduna

Antolatzailea:



Laguntzaileak:



Babeslea:



ZM: kazetari egin ninduen

Kazetaritza ikasten nenbilela, Zorrotz Morrotz aldizkarian hasi nintzen duela 15 urte baino gehiago. Otu zitzaidan unibertsitatean ikasitakoa beharbada hemen praktikan jartzeko aukera izango nuela, eta hala izan zen. Kazetaritza-eskola nagusi bihurtu zen niretzat ZM: erreportajeak idatzi, iturrietara jo informazio eske, erredaktoreen lana kudeatu...

Auzoa eta auzokoak gertutik ezagutu nituen, eta horietako hainbat lagun bihurtu ere bai. Ezin ahaztu, kaletik harrapatzen nindutenean, elkarrizketetarako proposamenak botatzen zizkidatela.

Ogibidetik harago, ekarpen pertsonalak ere egin dizkigu ZMk. Izan ere, lantalde polita osatu genuen: gure denbora librean musu-truk egindako lanarekin, poz-pozik; euskararekiko konpromisoa, euskara bizi genuen eta dugulako; eta harrotasuna, ZM herri-proiektua delako, modan dagoen berba erabilia, auzolana.

ZM Zorrotza da, eta Zorrotza euskalduna ezin da ZM gabe ulertu. Hortaz, bizitza luzea opa diot denona den aldizkari honi, eta zorionik beroenak 50 ale hauengatik!

Tais San José, ZMko koordinatzaile ohia

Auzoa, kultura eta euskera bat eginda

Nahiz eta berez zorrotzatarra ez izan, oso gertutik ezagutzen dut auzoa eta bertako jendea. Duela urte dezente proiektu honetan aritzeko proposamena jaso nuenean ez nuen bitan pentsatu, izan ere lehen aipatu dudan bezala auzo honekin dudan lotura oso estua da. Urte hauetan zehar aldaketa ugari izan ditugu eta denbora pasa ahala teknologia berrietara ohituz paperezko formatutik interneten ere gure txokoa izatera pasa gara. Albisteak ia-ia denbora errealean ikusteko aukera baliagarria dugu. Sare sozialak auzoan gertatzen den edozein gauza informatzeko eta irakurleekin parte-

katzeko euskarri ezinhobea dugu hainbeste maite dugun paperezko edizioa albo batean utzi gabe, noski. Gauzak asko aldatu dira baina hor irauten dugu eta ia pentsatzeko astirik izan gabe 50. alea kaleratzera heldu gara.

Finean, Zorrotzaren isla zuzena eta batez ere auzoan euskara bultzatzeko ezinbesteko tresna dugu aldizkaria, eta horiek bat egiten dutenean emaitza zein den argi ikusi daiteke. Zorionak eta urte askotarako!!

Ibai Barrios, ZMko erredakzio taldeko kidea



Taramona

ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75
Telefonoa: 94 442 44 68

TAILERRAK ETA ZERBITZUAK
Zorrotza-Kastrexana errep. 75
Telefonoa: 94 442 17 12



FARMAKOTEGIA
SUSANA
URRITIKOETXEA

Astillero 1. 48013. Zorrotza
Tfn. 94 441 61 46

Eskerrik asko Zorrotz Morrotz!

Edukiak lantzen eta lan taldeetan parte hartutakoei, akatsak zuzentzen ibilitakoei, noizbait zer edo zer bidali diguzuenei. Babesleei, jakina! Eta bereziki, irakurleei. Baina pertsonalki, batez ere, hainbeste ikasteko balioagarria izateagatik: mila esker ZM!

Ez dut zehazki gogoratzen noiz eta zelan izan zen. Ale honetako elkarrizketatuak, Bittorrek hain zuzen ere, parte hartzera animatu ninduen. Bazekien euskaltegian nenbilela: bai, A ereduko euskaldunberri horietakoa nauzue. Komunikazioaren munduak izugarri erakartzen ninduen, kazetaritza edo diseinu lanetan ikusten bainuen neure burua etorkizunean. Baina garaiko nire euskara traketsa hobetzeko asmoz hasi nintzen aldizkari horretako bilere-tan parte hartzen. Bederatzigarren alea izango zen. Azala koloretan inprimatu zen lehenetari-koa. Ondo gogoratzen dut saskibaloi taldeari egindako nire lehen erreportajea. Askoz gehiago izango zirela imajinatu gabe.

2001ean koordinazioa nire gain hartzea proposatu zidaten. Hamazortzi urteak bete berriak nituen. Borondatezko lan hutsez eta txin-tik ere kobratu barik aurrera eraman genuen aldizkaria, urtean bizpahiru ale ateraz. Gutxi eman dezake, baina izugarria izan zen aintzat hartuz geneuzkan baliabideak.

Diseinu grafiko ikasketak bukatu nituen. Fitxategiak bidaltzeko disketak eta postaria beharrezkoa zenean, Pablo gure diseinatzailea Leitza bizitzeak suposatzen zuen atzerapen arazo konpontzeko aukera bazegoen nik maketazioa lanak hartuta. Lan taldea guztiz eraberritu eta gaztatu zen. Hogeita gutxi urterekin, beteranoena nintzen! Ondo baino hobeto ordezkatu ninduen Taisek koordinazio lanetan, Lornaren laguntzarekin hasieran. Lan

eskerga ere egin genuen urte haietan. Urtean bizpahiru ale ateratzea lortu genuen. 36 orrialdeko aldizkari mamitsuegi hura betetzea ez zen batere erraza... Are gutxiago arazo ekonomikoak badaude. Diru laguntzak murriztu ziren eta Euskal Txokoaren programak murrizketak jasan zituen. Aldizkariaren maiztasuna gutxitu eta taldea deuseztatuz joan zen... Bolarada txarrak etorri ziren aldizkarirako.

2015ean ZM biziberritzeko proposamena jaso nuen Euskal Txokoan. "Gauzagarria izango da?" "Nolakoa izango da jendearen erantzuna?"... Atalak eta eremu berriak pentsatu behar, proiektuaren nondik norakoak azaldu, lan talde berria osatu, babes ekonomikoak lortu... Hainbeste urtez musutruk egindakoan berriro aritzeko aukera, eta ordu gutxiko lanaldian izan arren, soldatapean. Gauzagarria izango zen jakin gabe, aurrera egin nuen. Gaur egun, nahiko genukeen baino askoz erdaldunagoa den 12 mila biztanleko auzoan, ZM tokiko komunikabide finkatua da. Meritua duen ala ez, beste batek epaitu beharko luke. Nire aldetik, proiektu komunikatibo plurala garatzea lortu dugula uste dut, eta hasierako asmo zaharra lortuta, neure buruarekin pozik nago: euskara batzuen bihotzetatik eta beste batzuen pankartetatik ateratzea eta ezpaine-tara, orrialdeetara, eramatea lortu dugu.

Anekdota pilo bat bildu dut ia hogeitaz urte hauetan. Zenbat jende ederra ezagutu dudan elkarrizketetan! Zenbat bizipen ... Zenbat ikasi dudan! Zenbat hobetu dudan profesionalki!... Eskerrik asko bihotz bihotzez! Zerrenda luzea da: edukiak lantzen eta lan taldeetan parte hartu duzun guztiei, gure akatsak zuzentzen ibili zaretenei, noizbait zer edo zer bidali diguzuenei... Babesle izan edo gaur egun zaretenei, jakina! Eta bereziki, taberna edo saltokietan paperean, edo zure epostan on line, gurea denona den aldizkaria irakurtzen duzun horri! Baina pertsonalki, batez ere, eta hainbeste ikasteko balioagarria izateagatik: mila esker ZM!

Aitor Marin, ZMko koordinatzailea

Gaztegunek 10. urteurrena ospatzen du

10 urte pasa dira Zorrotzako Gaztegunek atek ireki zituenetik. Zorrotza-Kastrexana kalean irekitako espazio hura ez zen auzoan nerabe eta gazteentzat sortutako lehenengoa, baina bai lehena udal zerbitzu bezala lan egiten hasi zena. Urte batzuk lehenago, auzoko hainbat elkartek gazteentzako lokalak dinamizatu zituzten, gazteen beraien ideiak aurrera eramateko, elkar ezagutzeko edota balore eta jakintza berriak lantzeko. Lokal horien izenak Audioteka eta Gazte Lokala izan ziren; lehenengoa, Fray Juan kaleko lokaletan kokaturik zegoen eta bigarrena, berriz, Auzo Etxean.

Zorrotzako Gaztegunea helburu bereberekin jaio zen eta orain Fray Juan kalean dago, Azoka parkearen ondoan. Urtero auzoko gazte eta nerabe askok izena ematen dute eta haiek proposatutako ekintzetan parte hartzen dute. Gutxi gora-behera, urtero 130 gaztek izena ematen dute eta Gazteguneko proiektu ezberdinetan parte hartzen dute:

- **Ni bakarrik:** egunerokorako beharrezkoak diren jarrerak lantzen dira, gazteen autonomia lantzeko. Sukaldaritza tailerrak (Fun menu) edota formakuntza-ikastaroak (Forma-t).
- **Denok Batera:** kulturen arteko futbito txapelketa da. Auzoko gazteek osaturiko taldeek futbol-zelai ezberdinetan jokutzen dute.
- **Hezi bizi:** hainbat gai lantzen dira: genero berdintasuna, homofobia arrazakeria... eta bizitza osasungarriarekin loturiko ekintzak antolatzen dira: (Gaztezumba, Zu Kirolari...). Bes-



te hainbat ekintza hemen barruan sartzen dira: "Drogak biluztuz" edo "Sexualitatea".

- **Hartu ortu eta eman:** Hiri-baratzeen onurak ezagutzeko lekua da, non gazteek landareei buruz dituzten interesak garatu ditzaketen.
- **Sormena:** sormena estimulatzeko ekintzak burutzen dira.
- **Lagunartean:** pertsonen arteko harremanak lantzeko proiektua, erlazioak hobetzeko espazioak eta denborak prestatuz.
- **Hi Neska!:** nesken interesak lantzeko eta Gaztegunean konpromisoa garatzeko.

10 urte hauetan egindako balorazioa oso positiboa da, izandako lorpenak eta parte hartzea aipagarriak izan direlako. Gainera, Bilboko Gaztegunerik dinamikoa da: zenbakiak adierazten dutenez, gure espazioetan beste inon baino gazte eta nerabe gehiagok parte hartzen dute.

Urte askotarako! Zorionak Gaztegunea!



**ZORROTZA
HAZI
ARAZI**



ZORROTZAKO BATZOKIA

Erreserbetarako telefonoa: 94 465 46 15
(bazkariak, afariak, urtebetetzeak, ospakizunak...)



Arrate

Gustura irakurtzen dut eta ezagutzen ez ditudan auzoko gauzetaz enteratu egiten naiz. Irakurriko ez banu Zorrotzako informazio asko galduko nuke.



Erlantz

Gehien gustatzen zaidana Zorrotzaren gaineko gauzak direla da eta horrela auzoari buruzko informazioa jasotzen dut. Lan zoragarria egiten duzuela uste dut.



Narrea Peña eta Zuriñe Vila



Marta

Euskaraz dela gustatzen zait. Auzoko pertsoneri egindako elkarrizketak oso interesgarriak iruditzen zaizkit. Agian, ataltxoren bat gehituko nuke gaztelaniaz, askotan entzun izan dudalako euskara ez dakien jendeari ere interesgarria iruditzen zaiola.



Isabel

Lan ona egiten duzuela uste dut. Auzoari eskainitako aldizkaria da eta bertan agertzen diren artikulua eta elkarrizketak oso interesgarriak dira.



Rubén

Ezezagunak ditudan auzoko pertsonaia berriak ezagutzeko aukera izaten dut beti. Zorrotzako gaurkotasunari buruz irakurtzea ere gustatzen zait.



BAR VENECIA
Especialitateak:
 Kafea, tortilla, tortilla beteak eta bestelako pintxoak
Abaro estrata 10
AUPA ATHLETIC



viagraficazorrotza@gmail.com
Disenya



Iragar zaitez
ZM
ZORROTZ MORROTZ
aldizkarian!
Euskara sustatu
Zorrotzan!
 Tarifak eta informazioa:
zmorrotz@gmail.com

2018an

2-8
URTE

TROTXONGILOAK, IPUIN, KONTALARIAK,
MAGIA, ANTZERKIA

IKUSI ETA IKASI

• BILBOKO HAUR KULTUR ZIRKUITUA •

FAMILIA GIROAN GOZATZEKO AISIALDIA

ANTZERKIA ● MAGIA ● ZIRKUA ● TALEARRAK ● DANZAZALDIA ● HITZALDIA ● KONZERTU DIDAKTIKOA ● IPUAN KONTAKETA

ADI FAMILIA! **ORDUTEGI ALDAKETAK**
LEHEN ARRATSALDEZ ETA ORAIN GOIZEZ IZANGO DIRA!



03/10 TXIKI ERRITMO TAILERRA ✕

📍 Zorrotzako udalategian, 11:00etan

03/24 GOZOKI NATURALAREN TAILERRA ✕

📍 Zorrotzako udalategian, 11:00etan

03/17 IMANOL ITUIÑO ●

📍 Zorrotzako udalategian, 11:00etan

04/14 ODEI ARREGI ☐

📍 Zorrotzako udalategian, 11:00etan

Iure seme-alabekin euskaraz
disfrutatzeke baliabideak sarean:
IKUSI ETA IKASI BLOGA

Aholkuak, eskulanak, bideoak,
esteka interesgarriak, zozketak...
www.ikusietaikasi.eus



B
Bilbao

euskaltzainen
topagunea


Bilbon
euskaraz



B

Bilbao

▶ www.bilbaeuskaraz.eus



“ZORROTZ MORROTZ. 1995-2018.
50 ZENBAKI, HAMAIKA PROTAGONISTA”

ERAKUSKETA

OTSAILAK 23 - MARTXOAK 28

AUZOKA ZENTRO KOMUNITARIOAN (FRONTOI ATZEKO LOKALAK)

Antolatzaileak



Laguntzaileak



Babesleak

